# DONOSTIAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENAREN AURRERAKINA

## AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN



# Jarduera ekonomikoak

**Diagnostikoa**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Jarduera ekonomikoak

## Udalerriaren profil ekonomikoa

*Diagnostiko teknikoa*

## Errenta

- Gaur egun, udalerrian den **batez besteko familia-errenta Euskadikoa baino handiagoa** da, eta baita **Gipuzkoakoa baino handiagoa ere (%15)**.

Familia-errenta alderatua lurraldeka
Renta familiar comparada por territorios




- Donostiako **hemezortzi auzoetatik hamabik gainditzen** dute lurralde horietakoa.
- Bost, parean daude, **eta Altzak bakarrik du %80tik beherako** adierazlea.

## Jarduera tasak

- **Langabezia-tasak bilakaera positiboa izan du 2014az geroztik**, pandemian gora egin du eta azken urtean suspertu egin da.

- Hiri-mailako langabezia-tasa onargarria da, baina **Altza, Intxaurrondo, Loiola, Martutene eta Mirakruz-Bidebieta auzoek udalerriaren batez besteko adierazlea baino handiagoa dute**, bi puntu baino gehiago ere bai zenbaitek.

- Biztanleria aktiboa bere horretan dago joan deneko aspaldian, ez da handitu; langabeziak beheranzko joera du, eta **sekula baino enplegu-kopuru handiagoa** dago gaur egun. Hori dela eta, lan kontuengatik **erakarmen garbia** duen **udalerria** da Donostia.

# Jarduera ekonomikoak

## Ezarpen eredua - ezaugarriak

*Diagnostiko teknikoa*




| Auzoa | Lantoki ehunekoa | Lanpostu ehunekoa | Erlazioa |
|---|---|---|---|
| Aiete | 4.5 % | 2.7 % | 0,6 |
| Ibaeta | 8.5 % | 16.6 % | 2,0 |
| Igeldo | 0.6 % | 0.4 % | 0,7 |
| Intxaurrondo | 5.2 % | 5.4 % | 1,0 |
| Loiola | 1.7 % | 1.4 % | 0,8 |
| Martutene | 2.5 % | 2.8 % | 1,1 |
| Mirakruz - Bidebieta | 3 % | 1.9 % | 0,6 |
| Miramon - Zorroaga | 2.9 % | 9.7 % | 3,3 |
| Zubieta | 0.3 % | 0.7 % | 2,3 |
| Landerbaso | 0 % | 0 % | 0 |
| Oberan | 0 % | 0 % | 0 |
| Altza | 5.4 % | 3 % | 0,6 |
| Amaraberri | 12.3 % | 8.2 % | 0,7 |
| Antigua - Ondarreta | 7.7 % | 7.5 % | 1,0 |
| Añorga | 3.3 % | 7 % | 2,1 |
| Ategorrieta - Ulia | 1.3 % | 1.8 % | 1,4 |
| Erdialdea | 22.3 % | 19.4 % | 0,9 |
| Egia | 6.5 % | 5.5 % | 0,8 |
| Gros | 12 % | 7.6 % | 0,6 |

| Jarduera ekonomikoa auzoka | Actividad económica por barrio |
|---|---|
| Aktibitate ehunekoa | Porcentaje de actividades |
| Langile ehunekoa | Porcentaje trabajadores |
| *Harremana % lanpostu / % lantoki* | *Relación % empleos / % empresas* |
| 0 - 0,5 | 0 - 0,5 |
| 0,5 - 0,75 | 0,5 - 0,75 |
| 0,75 - 1 | 0,75 - 1 |
| 1 - 1,5 | 1 - 1,5 |
| 1,5 - 3,3 | 1,5 - 3,3 |

Eranskina - Jarduera Ekonomikoak
Anexo - Actividades económicas

Hirigunea
Área urbana

# Jarduera ekonomikoak

## Ezarpen eredua - auzokako banaketak - establezimendu kopurua

*Diagnostiko teknikoa*




| Auzoa | Lehen sektorea | Espezializazio eta energia baxuko industria | Espezializazio altuko industria | Garraioa eta logistika | Eraikuntza | Merkataritza | Zerbitzuak | Ostalaritza | Ostatatzea | Administrazio publikoa | Aisialdi, jolas eta kultura jarduerak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aiete | 4 | 57 | 2 | 43 | 11 | 55 | 583 | 16 | 6 | 3 | 17 | 797 |
| Ibaeta | 2 | 81 | 14 | 48 | 47 | 173 | 1060 | 49 | 9 | 8 | 17 | 1508 |
| Igeldo | 12 | 7 | 1 | 4 | 4 | 5 | 39 | 8 | 15 | 0 | 4 | 99 |
| Intxaurrondo | 1 | 108 | 4 | 66 | 38 | 149 | 474 | 52 | 2 | 8 | 24 | 926 |
| Loiola | 0 | 40 | 0 | 21 | 10 | 28 | 159 | 25 | 6 | 3 | 6 | 298 |
| Martutene | 6 | 106 | 10 | 26 | 20 | 110 | 143 | 20 | 1 | 0 | 4 | 446 |
| Mirakruz - Bidebieta | 1 | 60 | 3 | 41 | 19 | 71 | 281 | 33 | 1 | 0 | 15 | 525 |
| Miramon - Zorroaga | 2 | 19 | 24 | 9 | 8 | 25 | 395 | 18 | 6 | 4 | 3 | 513 |
| Zubieta | 2 | 5 | 0 | 9 | 1 | 20 | 16 | 6 | 1 | 0 | 0 | 60 |
| Landerbaso | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| Altza | 9 | 199 | 5 | 117 | 71 | 155 | 315 | 61 | 3 | 1 | 11 | 947 |
| Amaraberri | 3 | 119 | 7 | 100 | 46 | 334 | 1377 | 119 | 10 | 13 | 39 | 2167 |
| Antigua - Ondarreta | 4 | 56 | 7 | 51 | 40 | 200 | 872 | 80 | 18 | 6 | 34 | 1368 |
| Añorga | 5 | 28 | 9 | 16 | 18 | 82 | 403 | 11 | 2 | 0 | 7 | 581 |
| Ategorrieta - Ulia | 0 | 12 | 0 | 13 | 13 | 18 | 137 | 12 | 9 | 0 | 11 | 225 |
| Erdialdea | 9 | 103 | 10 | 47 | 45 | 836 | 2343 | 307 | 129 | 41 | 74 | 3944 |
| Egia | 4 | 120 | 7 | 61 | 23 | 121 | 677 | 67 | 10 | 12 | 42 | 1144 |
| Gros | 2 | 102 | 4 | 57 | 23 | 443 | 1236 | 170 | 35 | 6 | 41 | 2119 |

# Jarduera ekonomikoak

## Ezarpen eredua - auzokako banaketak - enplegu kopurua

*Diagnostiko teknikoa*




| | Lehen sektorea | Espezializazio eta energia baxuko industria | Espezializazio altuko industria | Garraioa eta logistika | Eraikuntza | Merkataritza | Zerbitzuak | Ostalaritza | Ostatatzea | Administrazio publikoa | Aisialdi, jolas eta kultura jarduerak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aiete | 4 | 67 | 2 | 69 | 11 | 134 | 1826 | 64 | 108 | 64 | 17 | 2366 |
| Ibaeta | 2 | 624 | 629 | 192 | 652 | 923 | 10167 | 456 | 62 | 443 | 133 | 14283 |
| Igeldo | 14 | 13 | 1 | 4 | 10 | 5 | 109 | 70 | 94 | 0 | 15 | 335 |
| Intxaurrondo | 1 | 149 | 23 | 569 | 138 | 844 | 2136 | 207 | 2 | 485 | 62 | 4616 |
| Loiola | 0 | 85 | 0 | 27 | 32 | 68 | 604 | 57 | 52 | 285 | 12 | 1222 |
| Martutene | 8 | 580 | 36 | 177 | 101 | 721 | 641 | 99 | 3 | 0 | 21 | 2387 |
| Mirakruz - Bidebieta | 17 | 79 | 5 | 66 | 21 | 200 | 1083 | 138 | 3 | 0 | 28 | 1640 |
| Miramon - Zorroaga | 2 | 219 | 592 | 49 | 186 | 154 | 6410 | 168 | 21 | 332 | 216 | 8349 |
| Zubieta | 2 | 11 | 0 | 136 | 3 | 170 | 255 | 34 | 1 | 0 | 0 | 612 |
| Landerbaso | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 |
| Altza | 19 | 367 | 408 | 194 | 129 | 343 | 1011 | 123 | 5 | 1 | 24 | 2624 |
| Amaraberri | 3 | 207 | 30 | 199 | 110 | 885 | 3851 | 457 | 174 | 1102 | 79 | 7097 |
| Antigua - Ondarreta | 10 | 75 | 33 | 115 | 221 | 543 | 4092 | 526 | 291 | 541 | 44 | 6491 |
| Añorga | 5 | 458 | 315 | 102 | 62 | 1063 | 3886 | 129 | 13 | 0 | 7 | 6040 |
| Ategorrieta - Ulia | 0 | 30 | 0 | 13 | 26 | 30 | 1311 | 77 | 45 | 0 | 22 | 1554 |
| Erdialdea | 17 | 213 | 18 | 302 | 119 | 2943 | 7396 | 2431 | 804 | 1811 | 604 | 16658 |
| Egia | 4 | 211 | 11 | 119 | 50 | 371 | 2755 | 261 | 51 | 775 | 126 | 4734 |
| Gros | 2 | 194 | 20 | 80 | 39 | 1048 | 3938 | 910 | 106 | 114 | 87 | 6538 |

| Lanpostuak auzo eta motaren arabera | Puestos de trabajo por tipo y barrio |
|---|---|
| Lehen sektorea | Sector primario |
| Espezializazio eta energia baxuko industria | Industria baja especialización y energía |
| Espezializazio altuko industria | Industria alta especialización |
| Garraioa eta logistika | Transporte y logística |
| Eraikuntza | Construcción |
| Merkataritza | Comercio |
| Zerbitzuak | Servicios generales |
| Ostalaritza | Hostelería y restauración |
| Ostatatzea | Alojamiento |
| Administrazio publikoa | Administración pública |
| Aisialdi, jolas eta kultura jarduerak | Actividades de ocio, recreativas y culturales |

Eranskina - Jarduera Ekonomikoak
Anexo - Actividades económicas

Hirigunea
Área urbana

# Jarduera ekonomikoak

## Ezarpen eredua - ezaugarriak

*Diagnostiko teknikoa*







- **Erdialdean eta Ibaetan bi etxebizitza eta erdi daude establezimenduko. Grosen eta Antigua-Ondarretan, berriz, hiru eta lau etxebizitza bitarte daude establezimenduko.**
- Beste muturrean daude **Aiete, Altza, Ategorrieta-Ulia, Intxaurrondo, Loiola eta Mirakruz-Bidebieta**. Bizitegi-eremu garbiak dira: **etxebizitza-establezimendu ratioa 8/1.**
- **Batez ere jarduera ekonomikorako diren azuoak Miramon-Zorroaga, Ibaeta eta Añorga dira**. Enplegu bakoitzeko 0,40 pertsona bizi da, batez beste, auzo horietan.
- **Oreka Erdialdean eta Martutenen dago: enplegu bat han bizi den pertsonako**. **Aiete, Altza, Loiola eta Mirakruz-Bidebieta** auzoak bizitegi-eremuak dira gehienbat: **9 biztanle enpleguko**.

# Jarduera ekonomikoak

## Ezarpen eredua - ezaugarriak

*Diagnostiko teknikoa*

## Jarduera ekonomikoaren kontzentrazioa

- **Auzoetako erakarpen zentroak** aztertu ditugu, **jarduera ekonomikoaren arabera.**
- Horretarako, «**auzoan bizitzeko modua**» sortzen duen jarduera nagusiak hartu ditugu kontuan; esate baterako:
  - **Hurbileko merkataritza**
  - **Ostalaritza**
  - **Jatetxe eskaintza**




Pintxo-potea Egian



Emanaldia Altzako San Martzial plazan

## **Jarduera, zonaka:** Bero-mapa



## **Jarduera, kaleka:** Giroa





# Jarduera ekonomikoak

## Turismoa

*Diagnostiko teknikoa*

## Turismo jardueraren bilakaera konparatua:

- Jasotzen duen bisitari kopuruaren araberako hirien rankingean 15.a da Donostia. **2021ean 521.121 bisitari izan zuen**
- **Seigarrena da Santiago de Compostela, Granada, Palma, Bartzelona eta horrelako hirien atzetik, eta Madril, Bilbo, Valentzia eta horrelako beste hiri batzuen aurretik dago.**

# Turismo intereseko puntuak

*Diagnostiko teknikoa*




| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Izena** | | | | | | |
| 1 | San Bizente eliza | 14 | Funikularra | 27 | Miramar Parkea | 40 | REALE Arena Futbol Zelaia |
| 2 | Konstituzio Plaza | 15 | "Haizearen Orrazia" eskultura | 28 | Cristina Enea Parkea | 41 | Tennis Elkarte Erreala |
| 3 | Santa Maria Eliza - Elizbarrutiko Museoa | 16 | Aieteko jauregia | 29 | Aieteko Parkea | 42 | Monte Igueldo. Jolas Parkea |
| 4 | "Eraikuntza Hutsa" eskultura | 17 | Basque Culinary Centre | 30 | Puiu Parkea | 43 | Antzoki zaharra |
| 5 | Ingelesen Hilerria | 18 | "Hondalea" eskultura | 31 | Miramon Parkea | | |
| 6 | Motako Gaztelua. Historiaren etxea | 19 | San Telmo museoa | 32 | "Ciudad San Sebastián" untzi turistikoa | | |
| 7 | Udaletxea | 20 | Euskal itsas museoa | 33 | Irlarako txalupak | | |
| 8 | Foru Aldundia | 21 | Aquariuma | 34 | La Perla Talaso-Sport Zentroa | | |
| 9 | Victoria Eugenia Antzokia | 22 | Tabakalera. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa | 35 | Luckia Kursaal Kasinoa | | |
| 10 | Kursaal Batzar Jauregia | 23 | Eureka! Euskal Zientzia Museoa | 36 | Koldo Mitxelena Kulturgunea | | |
| 11 | "Bakearen Usoa" Eskultura | 24 | Chillida leku Museoa | 37 | Donostia Arena 2016-Ilunbe | | |
| 12 | Artzain Onaren Katedrala | 25 | Museum Cemento Rezola | 38 | Izotz jauregia | | |
| 13 | Miramar Jauregia | 26 | Urgulleko parkea | 39 | Kirol hiria | | |

| **Turismoa** | | **Turismo** |
|---|---|---|
| *Elementu turistikoak* | | *Elementos turísticos* |
| Monumentua | ● | Monumentos |
| Museoak | ● | Museos |
| Parkeak | ● | Parques |
| Aisia | ● | Ocio |

# Jarduera ekonomikoak

## Turismo-ostatu jarduera

*Diagnostiko teknikoa*







# Turismo jardueraren ezaugarriak:

## Ohiko ostatua

- **Eskaintza nahiko egonkor izan zen 2016ra arte** (48 plaza baino gehiago 1.000 biztanleko) - **9.100 ostatu-plaza, gutxi gorabehera**.
- **2016tik aurrera nabarmen handi**tu zen plaza-kopurua.
- 2020an jaitsi egin zen, Covidaren ondorioz.
- 2020tik aurrera asko handitu zen berriz ere, eta **2021erako 54,60 ostatu-plaza ziren 1.000 biztanleko - 13.325 ostatu-plaza**.

## Ostatu etxebizitza

- **Hazkunde izugarria azkeneko urteetan**
- **2015ean** ia **bat ere ez** zen.
- **2021ean, 1.340 ETE eta 139 ETEL**

# Jarduera ekonomikoak

## Turismo-ostatu jarduera

*Diagnostiko teknikoa*

Ostatu-plazen ehunekoaestablezimendu motarenarabera (2021)
Porcentaje de plazas de alojamiento por tipode establecimiento (2021)




# Ostatu eskaintzaren egungo egoera:

- **Sei urte eskasean**, ostatu-plazak **10.652 ugaritu** dira; **2016an zirenak halako %116,62 gehiago**
- **Gaur egun 19.828 ostatu-plaza** izango direla jotzen da. Horrek esan nahi du **100 biztanleko 10,88 ostatu-plaza daudela batez beste. 2016an 5,05 zen**.
- Den eskaintza moduaren banaketa ere adierazgarria da. **Logelen alokairuaren % 70 hotelek eta ETEk biltzen dute**.

# Jarduera ekonomikoak

## Turismo-ostatu jarduera

*Diagnostiko teknikoa*




## Turismo-ostatuaren kokapena:

- **Ohiko ostatuetan, establezimenduen erdiak Erdialdean daude**. Hurrena Grosen, eta handik hurrena, alde handiz, Antiguan.
- Ostatu-etxebizitzan ere antzeko panorama dago, ñabardura batzuk badiren arren. **Erdialdea nabarmentzen da: ostatu-etxebizitzen %50** (**ETE eta ETEL).**
- **Kasu honetan, Grosek indar handiagoa** hartzen du: ostatue-etxebizitzen **%25** du.
- **Ostatu-plaza** aldetik, **Erdialdea** da, berriro ere, plaza gehien duen auzoa, baina **alde txikiagoa ateratzen die gainerako auzoei** horretan.
- **Erdialdeak** eta Grosek **biltzen dituzte establezimendu txiki/ertainik gehienak**. **Antigua-Ondarretan**, berriz, **hotel handiak eta ikasleen egoitzak** dira.
- **Ondarretan eta Grosen egindako establezimendu berriak hiri-bilbean** daude.


Ohiko-ostatua
Vivienda alojativa
Landa-turismo
Agroturismo
Albergue
aterpetxea
Apartamentuak
Apartamentos
Kanpina
Camping
Hotela
Hotel
Ostatua
Hostal
Logela-kopurua
Nº de habitaciones
0 - 25
0 - 25
25 - 50
25- 50
50 - 100
50 - 100
100 - 250
100 - 250
250 - 905
250 - 905
Turismo jarduera
Actividad de turismo
Hirigunea
Area urbana
Eskala A3 1/35.000
Escala




Turismo jarduera
Actividad de turismo

Hirigunea
Área urbana

Eskala A3 1/25.00
Escala

# Jarduera ekonomikoak

## Turismo-ostatu jarduera

*Diagnostiko teknikoa*



## Ostatu turistiko jasangarria eta ostatu hartutako biztanleen lurralde-banaketa:

- **Turismo ostatu plazen ehunekoa** adierazten du **(ostatu hartu dezakeen biztanleria potentzial osoa)**, **biztanleria osoaren aldean (biztanleria egoiliarra).** Turismo ostatuetan hotelak, apartotelak, ostatuak eta pentsioak, apartamentu turistikoak, gazteentzako aterpetxeak eta aldi baterako ostatu hartzeko egoitza kolektiboak sartzen dira.

- Segregazioa dagoela jotzen da segregazio-indizea 25etik gorakoa denean, hau da, aztertutako populazio-taldearen % 25ek baino gehiagok kokapena aldatu behar badu banaketa parekidea izateako. **Lortu nahi litzatekeen helburuak banaketan ekitatea lortze aldera egin du, eta ekitate hori erabilera turistikorako %10 baino txikiagoa izatea jotzen da.**


13.48
0
0.81
26.92
10.26
0
11.6
7.34
0.36
17.58
21.36
8.32
2.71
1.57
0.76
28.75
1.89
0.59
2.27
0
39.98
0.45
0.28
1.21
13.51
15.34
0.09
11.09
0.69
0.15
0
31.83
2.89
20.79
0.08
48.23
0
0
0.13
0
2.47
4.8
1.95
1.09
0.47
4.29
1.47
0
1374
0.46
6.55
0.74
7.77
10.2
0
0.32
6.01
2.49
4.56
0.09
40.44
5.8
0.85
1.69
0.1
1550
0
0.24
8.89
0
0
0
3.35
0
0
0
0
4.99
0.96
0.22
0.76
7.61
90
0
0
0
0.99
0
0
turismo-ostatu jasangarrirako adierazlea
Indicador para el alojamiento turístico sostenible
0 - 5
5 - 10
10 - 15
15 - 20
20 - 25
25 - 2.000
Turismo jarduera
Actividad de turismo
Hirigunea
Área urbana
Eskala A3 1/35.000
Escala


turismo-ostatu jasangarrirako adierazlea
Indicador para el alojamiento turístico sostenible
0 - 5
5 - 10
10 - 15
15 - 20
20 - 25
25 - 2.000
Turismo jarduera
Actividad de turismo
Hirigunea
Área urbana
Eskala A3 1/35.000
Escala

# Jarduera ekonomikoak

## Jarduera ekonomikoetako guneen garapen maila

*Diagnostiko teknikoa*



# Jarduera ekonomikoak

## Hiriko berrikuntza-klusterrak

*Diagnostiko teknikoa*




**Donostiako zientzia eta berrikuntza Klusterrak** / **Clusters científicos y de innovación de Donostia**

Cluster-ak / Clusters

1 Zentek
2 Cluster Guztiona
3 Enertic Democenter
4 Biodonostia
5 Miramon Teknologia parkea
6 Basque Culinary Centre
7 Zuatzu enpresa parkea
8 Belartza enpresa parkea
9 Teknun. Nafarroako unibertsitatea
10 Ibaetako Kanpusa. EHU/UPV
11 Talent House
12 Deustu Unibertsitatea
13 Tabakalera
14 CIC Nanogune

Eranskina - Jarduera Ekonomikoak
Anexo - Actividades económicas

Hirigunea
Área urbana

# Jarduera ekonomikoak

## Jarduera ekonomikoko guneak - Miramon

*Diagnostiko teknikoa*




# Hutsik diren lursailetako aukerak:

- Gaur egun, indarrean dagoen HAPBren arabera, **hutsik** diren lursailetan **45.000 m²** daude eraikigarri.

- Miramonen proposatutako eraikigarritasunak **0,5 eta 2 artean daude, lursailaren arabera**.

- Indarrean den HAPBk malgutu egiten du lursail batzuetako eraikinen profil gehienekoa.

- **Gauzatzeke dauden lursailek eraikigarritasun handiagoa izateko modua emango lukete**; lehen den egitura formala desitxuratu gabe handitzekoa, **profil malgutasun hori gainerako lursailetara zabalduko balitz**.

# Jarduera ekonomikoak

## Jarduera ekonomikoko guneak - Miramon Gertuko ingurua

*Diagnostiko teknikoa*



# Jarduera ekonomikoak

## Jarduera ekonomikoko guneak - 27. poligonoa

*Diagnostiko teknikoa*






## Deskribapena eta aukera:

- Beheko solairu guztia **ia erabat beteta** duen poligonoa da. Lursail bat bakarrik dauka hutsik: 1.380 m².
- Parkearen **gune publikoa** eskasa da: ibilgailu partikular asko eta bat ere landarerik ez ia. **Berriz aztertu beharko litzateke.**
- Lursailen eraikigarritasuna banan-banan aztertuz gero, 0,2 m²t/m²s eta 2,1 m²t/m²s artekoa dela ageri da, nahiz eta **gehienak 0,5 m²t/m²s eta 1 m²t/m²s artean dauden** eta **eremuaren intentsitatea handitzeko** modua ekar dezakeen horrek.

# Jarduera ekonomikoak

## Jarduera ekonomikoko guneak - Igara

*Diagnostiko teknikoa*




# Aukerak:

- Zerbait egiteko bidea izan liteke **Igara industrialdeko mendebaldeko muturrean**. Eremua berrantolatzea, lurralde naturalerako ateen testuinguruan (Igeldo).
- Den **erreka berreskuratzeko aukera**
- Gunea berritxuratzeko modua eman dezaketen guneak identifikatzea.



# Jarduera ekonomikoak

## Parte-hartze prozesuaren ekarpenak

*Diagnostiko teknikoa*

## 0 gaia: Lurralde eta hirigintza estrategia

- **Turismoa** da **hobetzeko premia handiena** duen alderdietako bat

## 02. gaia: Iraunkortasuna eta klima-aldaketa

- Natura-inguruneari buruzko mahai sektorialean, garrantzitsutzat jo zen **energia berriztagarrien** aldeko apustua egitea eta **tokiko nekazaritza** sustatzea.

## 03. gaia: Ondarea eta euskara

- Auzoetako mahaiek **ondare eraikinak adibidez ekipamendu, etxebizitza eta/edo lokaletarako aprobetxatzearen alde** egin zuten.

## 04. gaia:Turismoa

- Oro har, **turismoak gaur egun duen eragina gaizki iruditzen zaio** jendeari (bost parte-hartzailetik hiru), eta ondo bostetatik bati. Eragin negatiboa, batez ere, etxebizitzan, mugikortasunean eta gune publikoan gertatzen da. **Eragin positiborik handiena merkataritzan eta ostalaritzan (% 61).**

- Mahai sektorialetan nabarmendu zuten egungo ereduak baliabide natural asko kontsumitzen dituela, eta aldatu egin behar litzatekeela.

- Auzoetako mahaietan alde handiak izan ziren: Ekialdeko Barrutiari ez zaio iruditzen zuzenean eragiten dionik. **Erdialdekoari, berriz, hotelak eta etxebizitzen prezioak asko igo direla eta, ondorioz, auzotarrak lekuz aldatu beharrean geratzen direla iruditzen zaio.**

- **Lankidetza-mapak erakusten duenez, turismoaren eta donostiarren arteko auzirik handiena duten tokiak, batez ere Parte Zaharra, Erdialdea eta Gros dira**. Alde Zaharrean eta Erdialdean, batez ere gune publikoak eta mugikortasunak eragiten dute auzia; Grosen, berriz, etxebizitza-arazoak dira nagusi. Udalerriko beste auzoetan, etxebizitza aldetik Antigua, Amara Berria eta Egia dira nabarmen. Mugikortasun eta aparkaleku aldetik, berriz, hiru eremu nagusiez gain, Amara nabarmentzen da. **Oro har, gune turistikoena ez da herritarrentzat irisgarri jotzen.**

## 05. gaia: Natura-ingurunea

- Udalerrian **lantzeko moduko lur gutxi** izateak dakarren kezka nabarmendu zen.

## 08. gaia: Etxebizitza eta hiri-berroneratzea

- **Etxebizitza-baldintzak betetzen dituzten lokalei dagokienez, % 77k dio utzi egin behar litzatekeela eraldatzen.**

- Hamar parte-hartzailetik zazpik (% 71) uste du aukerarik atseginena, dinamikoena eta jasangarriena **beheko solairuan merkataritza edo ekipamenduak dituzten etxebizitza kolektiboena** dela.

- Mahai sektorialean jaso zen **Donostiako etxebizitzen arazorik handiena prezioa dela (bai alokatzeko, bai erosteko prezioa), batez ere turismoak eraginda**. Lehendik diren etxebizitzak hobetzea eta beheko solairuetan merkataritza eta/edo ekipamenduak dituzten etxebizitza kolektiboak izatea proposatu zuten, eta **Atotxa Errekako eredua saihestea**.

- Ekialdeko Barrutian ez beste auzoetan lehentasun handiko kontua izan zen. **Alde batetik, adierazi zen Erdialdean ez dela ez zuzkidura-etxebizitzarik ez eta BOErik, eta hotelak eta etxebizitza turistikoak eraikitzeko bidea ematen dela.**

# 09. gaia: Jarduera ekonomikoa

- Iritzi batasun gehien izan zuten gaiak hauek izan ziren: **ikerketa eta teknologia sustatu beharra** (parte-hartzaileen erdia baino gehiago), eta ekintzailetzarako gune berriak izatea (%71). Aztertutako gainerako gaietan era askotako iritziak izan ziren.

- **Hurbileko saltokiei eta zerbitzuei dagokienez, %43k bakarrik uste du nahikoak direla. %53k uste du beste kale edo merkataritza guneren bat sustatu beharko litzatekeela**. Bestalde, parte-hartzaileen %39k uste du ez dagoela behar adina lan-eskaintzarik, ez kantitate, ez lan klase aldetik. %21ek, berriz, baietz uste du.

- Mahai sektorialak lehentasunezkotzat jo zuen Donostiako hurbileko saltokiak eta zerbitzuak indartzea, eta **kaleak, merkataritza guneak eta lokalak hobetzea**. Nekazaritzari dagokionez, Andonegiko mehatxua eta ingurumen-inpaktua nabarmendu ziren.

- Auzoetan, gai hori ez zen lehentasunezkoa izan, eta ez zen xehetasunez jorratu. **Hala ere, Añorgan eta Igeldon nekazaritzari eta 0 km-ko ekoizpenari eustea eta horrelakoak ere jaso ziren.**

- Mapan merkataritza **sustatu behar den hiri-bilbeko eremuak adierazten dira. Besteak beste, Amara Berri, Erdialdea eta Altza.**

- Bestalde, hiri-inguruko eremuan, industria garbiak nabarmentzen dira Añorgan, Miramon-Zorroagan eta Altzan, eta nekazaritza Martutenen.